

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Lehenbizi testu bat duzu.
- Testu bakar horren gainean eraikita daude bi atal (A eta B)
 - A atala: irakurmena eta hizkuntza (5 puntu guztira)
 - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
 - Gaia eta laburpena (1,5 puntu)
 - Hizkuntza (1,5 puntu)
 - B atala: testu-ekoizpena (5 puntu guztira)
 - Iritzi-artikulua edo emaila (4 puntu)
 - Egin lotura (1 puntu)

Ez ahaztu kodea azterketa-koaderno guztietan idaztea.

Ama-hizkuntza medikuntzan

Gipuzkoako emergentzietako zentro koordinatzaileira deia iritsi da: “auto batek gizonezko bat harrapatu du, laguntza bidali lehenbailehen, mesedez”. Anbulantzia medikalizatua ziztu bizi iritsi da lekura. Gizonezkoa hil ala bizi dago, eta medikuak tratamendua jarri nahi dio. Orduan, galdera: “Alergiarik baduzu?”. Pazientearen erantzuna: “Ni ez naiz Aljeriakoa, marokarra baizik”. Medikuek eta pazienteek ez dute elkar ulertzen, eta ezin da bete medikuntzako oinarrietako bat; alegia, pazientearen eta medikuaren arteko komunikazioa. Beraz, arriskuan jartzen da pazientearen ongizatea.

Medikuntzako ikasleoi hasieratik bukaerara arte errepikatzen digute historia klinikoa behar bezala betetzearen garrantzia, aurrekariak, tratamendua eta uneko gaixotasuna ondo bilduz, gerora pazienteari diagnostiko egokia egiteko eta tratamendu aproposa jartzeko.

Horretaz gain, osasun-langile guztien eginkizuna izan beharko litzateke egoera zaugarrian dagoen pazientearekin ahalik eta hobekien komunikatzeko baliabideak izatea. Nola beteko du medikuak bere eginkizuna modu egokian, pazientearekin komunikatu gabe? Gaur egun, denon eskubidea da kalitatezko osasun-arreta jasotzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da osasun-langileekin komunikazio egokia izatea, hau da, ahal dela norberaren ama-hizkuntzan artatua izatea. Izan ere, solaskideak dioskuna ulertzen ez dugunean, interpretatu egiten dugu egoera, eta interpretazioa tartean denean, medikuntzan batez ere, okertu egiten gara.

Egoera hori ez dugu euskaldunok bakarrik bizi. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak aitortu egiten du ingurune klinikoan pazienteek bizi duten egoera berezia eta askotan zaugarria, eta argi eta garbi uzten du egoera horren aurrean osasun-langileek ezinbestean kontuan hartu behar dutela pazienteen ama-hizkuntza.

Osasun-langile guztiek, etengabeko prestakuntzaren bidez, pazientearekin hobeto komunikatzeko tresnak eskuratu beharko lituzkete, eta ezinbestekoa da prestakuntza horren barruan ama-hizkuntzaren ezagutza ere sartzea. Horren harira, gomendagarria litzateke gure osasun-sistemara kanpotik datozen langileei harrera berezia egitea eta, Euskal Herriko osasun-sistemak dituen ezaugarriak azaltzeaz gain, gure hizkuntzaren berezitasunak, beharrak eta ezaugarriak ere ezagutaraztea. Kalitatezko osasun-arreta jasotzeko, guztiz beharrezkoa eta ezinbestekoa da bakoitzaren ama-hizkuntzan artatua izatea.

Ruth Salaberria
Elhuyar Zientzia
(moldatua)

A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (5 PUNTU)

A.1. ULERMENARI BURUZKO GALDERAK. Erantzun labur ondoren dituzun galderei. (2 puntu)

- a) Zein da testuaren hasieran deskribatutako egoeraren arrisku nagusia?
- b) Zergatik dio egileak komunikazio egokia ezinbestekoa dela medikuntzan?
- c) Nola lotzen du egileak ama-hizkuntzan artatzearen beharra pazientearen eskubideekin?
- d) Zer proposatzen du egileak osasun-langileen komunikazio-gaitasuna areagotzeko?

A.2. GAIA ETA LABURPENA (1,5 puntu)

Testuingurua

Lagun artean eztabaidan ari zinetela, lagun bat heldu da zuengana: eztabaidagai duzuen testua ez duela ezagutzen esan dizu, eta zeri buruzkoa den azaltzeko eskatu.

A.2.1 Adieraz ezazu, zure hitzekin eta gehienez ere esaldi batean, zein den irakurritako testuaren gaia. (0,5 puntu)

A.2.2 Egin ezazu “Ama-hizkuntza medikuntzan” testuaren laburpena (**gehienez 60 hitz**). (1 puntu)

A.3. HIZKUNTZA (1,5 puntu)

Testuingurua

Irakurritako eta eztabaidagai izandako artikulua berebiziko interesa sortu du zuegan, eta zeuk ere gaiari buruz idaztea erabaki duzue. Izan ere, zure esperientzia eta ikuspegia beste pertsona batzuentzat lagungarri izan daitezke. Testua ekoizteko prestaketa-lana egin behar duzue.

A.3.1 Zeure testua zirriborratzen aritu ondoren, berrikusteari ekin diezue. Horretan ari zinela, azpiko paragrafoan bost akats gramatikal eta ortografiko daudela ikusi duzue: oraintxe bertan zuzenduko dituzue, gerora ez ahazteko. (0,5 puntu)

Azken finean, mediku baten egitekoa, gehienetan, pazientearen sendatzea eta haren ongizatea bermatu izaten da. Eta hori egiten du mediku bat "ona", pazientearen ongi artatzeak eta diagnostiko egokia egiteak, eta hori egin ondoren haren bizitza salbatzeak edo haren sintoma larrienak arintzeak; baina, beste egiterako batzuk ere badu mediku onak: pazientearen osasuna sustatzea, gaixotasunak prebenitzea eta osasun mentaleko arazoak zaintzea.

A.3.2 Zure idazlanari dagokionez, nahiago duzue "Ama-hizkuntza medikuntzan" testuko hitz batzuk ez errepikatu, testua pertsonalagoa izan dadin. Horretarako, sinonimoen zerrendatxo bat osatu beharko duzue. Eman honako hitz hauen sinonimo bana edo azal ezazu, zure hitzen bidez, hitz bakoitzaren esanahia: (0,5 puntu)

- a) *apropos*
- b) *baliabide*
- c) *sustatu*
- d) *ziztu bizian*
- e) *alegia*

A.3.3 Halaber, trebatzen jarraitzearren, honako adizki hauek aldatu behar dituzu; zehazki, ondoren adierazitako moduan eman behar dituzu: (0,5 puntu)

- a) *iritsi da*. Eman lehenaldi burutuan.
- b) *jartzen da*. Eman geroaldian.
- c) *dagoen*. Bihurtu alegiatzko edo hipotetiko.
- d) *egiten dugu*. Eman ahaleran.
- e) *errepikatzen digute*. Eman lehenaldi burutugabea.

B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (5 PUNTU)

B.1 IDAZLAN NAGUSIA

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (B.1.1 edo B.1.2) (**gutxienez 180 hitz**) (4 puntu)

B.1.1 Iritzi-artikulu

Ruth Salaberriaren testua irakurrita, ikusi duzu osasun-langileen eta pazienteen arteko komunikazioak berebiziko garrantzia duela, eta hizkuntza-oztopoek pazienteen ongizatea arriskuan jar dezaketela. Idatzi gaiari buruzko iritzi-artikulu bat, zure esperientzia eta usteak azaltzen dituena.

B.1.2 Emaila

Haserre xamar zaude orain dela gutxi zure osasun-zentroan hizkuntzari loturik izandako esperientzia txar baten ondorioz. Hori dela eta, Osasun Saileko arduradun bati emaila idaztea erabaki duzu, gertatutakoaren berri eman eta kexa eraikitzailea adierazteko. Gogoratu mezu elektronikoko bat idazteko, igorlea, hartzailea eta gaia zehaztu behar dituzula.

B.2 EGIN LOTURA

Ondoren, Osakidetzan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina batean erabilitako irudia eta Lazkao Txikiren bertso bat dituzu. Hautatu bietako bat, azaldu labur zein den mezu nagusia eta egin lotura mezu horren eta “Amahizkuntza medikuntzan” testuko ideien artean (**gehienez 50 hitz**). (1 puntu)

B.2.1 Osakidetzaren iragarkia



Euskararen erabilera bultzatzeko Osakidetzaren kanpaina baten irudia. Argazkia: Osakidetza

B.2.2 Lazkao Txikiren bertsoa bere sehaskari

Hara ta honuntz¹ astindutzen² zan,
hotsa jotzen zuen kun-kun,
aingerutxo bat banintz bezela³
gordetzen ninduen txukun.
Amak ertzetik kantatzen zuen,
gero sehaskak erantzun,
gaur nik dakidan euskera ere
zuk erakutsi zidazun.⁴

Lazkao Txiki

1 *honuntz*: 'honantz'.

2 *astindutzen*: 'astintzen'

3 *bezela*: 'bezala'.

4 *zidazun*: 'zenidan'.